

## UDALBATZARI / AL AYUNTAMIENTO PLENO

### **DONOSTIAN AIREAREN KALITATEA HOBETZEKO, KLIMA ALDAKETA ARINTZEKO ETA ISURI GUTXIKO EREMUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENEA**

### **APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA MEJORA DE LA CALIDAD DEL AIRE, MITIGACIÓN DEL CAMBIO CLIMÁTICO Y REGULACIÓN DE LAS ZONAS DE BAJAS EMISIONES EN SAN SEBASTIÁN**

Maiatzaren 21eko 7/2021 Legeak, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoak 14.3 a) artikuluan, 50.000 biztanletik gorako udalerriei ezartzen die Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planak (HMJP) onartzea. Plan horiek mugikortasunaren ondoriozko emisioak murrizteko neurriak izan behar dituzte, gutxienez isuri gutxiko eremuak ezartzea barne. Lege hori garatzeko, abenduaren 27ko 1052/2022 Errege Dekretua onartu zen, toki-erakundeek ezartzen dituzten isuri gutxiko eremuek bete beharreko gutxieneko baldintzak arautzen dituena.

La Ley 7/2021, de 21 de mayo, de Cambio Climático y Transición Energética, en su artículo 14.3 a), impone a los municipios de más de 50.000 habitantes la adopción de Planes de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS), que deben introducir medidas de mitigación para reducir las emisiones derivadas de la movilidad, incluyendo al menos el establecimiento de zonas de bajas emisiones. En desarrollo de esta Ley, se dictó el Real decreto 1052/2022, de 27 de diciembre, por el que se regulan los requisitos mínimos que deberán satisfacer las zonas de bajas emisiones que las Entidades Locales establezcan.

Lege-betekizun hori betetze aldera, Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, hasiera batean, 2023ko abenduaren 26an, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana (2024-2029) eta Donostia Erdialdea Isuri Gutxiko Eremuaren proiektua onartu zituen.

De cara a dar cumplimiento a este requisito legal la junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián aprobó de forma inicial, con fecha de 26 de diciembre de 2023, el Plan de Movilidad Urbana Sostenible (2024-2029) y el proyecto de Zona de Bajas Emisiones Donostia Centro.

Biek jendaurreko erakustaldia (45 egun) eta parte hartzeko prozesuak izan zituzten 2023ko abendutik 2024ko martxora bitartean, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 14an behin betiko onartu baino lehen.

Ambos contaron con un periodo de exposición pública (45 días) y procesos de participación entre diciembre de 2023 y marzo de 2024 antes de su aprobación definitiva por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento el 14 de mayo de 2024.

Gainera, Hiriko Mugikortasun Jasangarriko Plana Eusko Jaurlaritzari bidali zitzaion, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zezan. Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak, 2024ko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez, erabaki zuen ebazpenean ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak eta sustatzaileak proposatutakoak hartzen ziren guztietan ez zela aurreikusten Planak ondorio kaltegarri nabarmenik izango zuenik ingurumenean, eta, beraz, Planaren

Además, el Plan de Movilidad Urbana Sostenible fue enviado a Gobierno Vasco para su Evaluación Ambiental Estratégica. El Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, mediante Resolución de 9 de abril de 2024, determinó que siempre que se adoptasen las medidas protectoras y correctoras establecidas en la Resolución, así como las planteadas por el promotor, no se preveía que el Plan fuese a producir efectos adversos



ingurumen-adierazpen estrategikoa onartu zen.

significativos sobre el medio ambiente, por lo que se aprobó la Declaración Ambiental Estratégica del Plan.

Horregatik, hainbat udal-arloekin lankidetzan, airearen kalitatea hobetzeko, klima aldaketa arintzeko eta isuri gutxiko eremuak arautzeko ordenantza-proiektu bat egin da, eta hori administrazio-espedienteari erantsi zaio.

Por ello, en colaboración con diversas áreas municipales, se ha elaborado un proyecto de Ordenanza para la mejora de la calidad del aire, mitigación del cambio climático y regulación de las zonas de bajas emisiones, que se adjunta al expediente administrativo.

Otsailaren 19tik martxoaren 8ra bitartean bigarren kontsulta publikoa egin zen Ordenantza honi buruz eta kontsulta publiko etan aurkeztutako ekarpenei buruzko txostena espedientean jasota dago.

Desde el 19 de febrero al 8 de marzo se realizó la segunda consulta pública previa en relación a esta Ordenanza y el resumen sobre las aportaciones presentadas durante la consulta pública está incluido en el expediente.

Halaber, espedientearen zati gisa, honako txosten hauek sartu dira:

Asimismo, como parte del expediente se incluyen los siguientes informes:

- Txosten juridikoa, Zuzendaritza Juridikoak egina.
- Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak genero-ikuspegiari buruz egindako txostena.
- Genero-ikuspegiari buruzko txostena, Berdintasun Atalak egina.
- Jasangarritasun ekonomikoari buruzko balorazio-txostena, Finantza Arloak egina.
- Kontuhartzailtza eta Kontabilitate Zuzendaritzaren aldeko txostena.
- Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzako Atal Juridiko-Administratiboak erregulazio onaren printzipioak betetzen direla justifikatzeko egindako txostena.
- Euskara Zerbitzuaren txostena.
- Informe jurídico realizado por la Dirección Jurídica.
- Informe de perspectiva de género realizada por la Dirección de Salud y Medio Ambiente.
- Informe de perspectiva de género realizada por la Sección de Igualdad.
- Informe de valoración sobre sostenibilidad económica realizada por el Área Financiera.
- Informe favorable de la Dirección de Intervención y Contabilidad.
- Informe de justificación del cumplimiento de los principios de buena regulación realizada por la Sección Jurídico-Administrativa de la Dirección de Salud y Medio Ambiente.
- Informe del Servicio de Euskera.

Era berean, parte-hartze publikoko prozesuaren berri eman zitzaizkien Ingurumeneko Kontseilu Sektorialeko kideei, isuri gutxiko eremuaren izapidetzearekin lotuta.

Igualmente, se dio cuenta del proceso de participación pública asociado a la tramitación de la zona de bajas emisiones a los miembros del Consejo Sectorial de Medio Ambiente.



Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 49. artikuluan xedatutakorekin bat, hasierako onarpena eman behar zaio. Horretarako, honako akordio hau proposatzen zaio Udalbatzari:

Procede en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el Artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local, su aprobación inicial, por lo que se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

### **AKORDIOA**

1. "Donostian airearen kalitatea hobetzeko, klima aldaketa arintzeko eta isuri gutxiko eremuak arautzeko udal ordenantza" hasiera batean onartzea.

2. Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

### **ACUERDO**

1º.- Aprobar inicialmente la "Ordenanza municipal para la mejora de la calidad del aire, mitigación del cambio climático y regulación de las zonas de bajas emisiones en San Sebastián".

2º.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostian, 2024ko ekainaren 17an

INGURUMEN OSASUNAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ZERBITZUAREN BURUA  
LA JEFA DE SERVICIO DE SALUD AMBIENTAL Y SOSTENIBILIDAD

Ana Juaristi Arrieta

EKOLOGIA ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA  
EL CONCEJAL DELEGADO DE ECOLOGÍA Y PROYECTOS URBANOS

Juan Marrero Vizcaino